

# BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA
513. zkia
XIII. urtea
2005ko urtarrilaren 14a

# «Elgoibarko Izarra etapa berri baten atarian ikusten dut»

[ **KANPOTARRAK GUREAN** ] ALINA SANCHEZ • [ **GAZTAROA** ] MIREN GILLO

Mutua General de Seguros

ASEGURU MOTA GUZTIAK

Istripu aseguruak
Istripuak errentarekin
Gaixotasun aseguruak
Auto aseguruak
Etxe aseguruak

Aurrezte planak
Jubilazio planak
Bizitza aseguruak
PYME aseguruak
Denda aseguruak

Diru inbertsioak
- "Vida fondo" (unit link)
- Boltsa
- Inberseguruak (kapital ziurtatuarekin)
- PPA desgrabatzeko eta kapital ziurtatua

ELGOIBARKO DELEGAZIOAK URTERO
BEZEROEN ARTEAN ZOZKETATZEN DUEN TELEBISTA,

BASILIO ARAUJOri EGOKITU ZAIO

ZORIONAK!



Jausoro plaza, 1 behea
Tel: 943 74 26 99
Faxa: 943 74 12 35
E-posta: mgsluisa@euskalnet.net

DELEGATUA: M. Luisa Urain Arakistain



ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



# ZOZOAK BELEARI...



**AINHOA MENDIBIL**

Arratsaldeon Amaia, (beno, eta irakurle)
Estreineko aldia, gure lehen aldia...
Atzo, botikara aspirinatara joana nintzela, kondoi paketeak ikusi nituen nire ezkerretara. Eta, sinestu edo ez, zu nire gogora. Zu, eta une hau. Leku hau, eta orri hau; izara zuriak lez gure berben oinarri.
Konturatu orduko, adurra ere ezkutatzen lagatzen ez zidan irribarrea nuen aurpegian marrazturik. Ostiral iluntzea nuen buruan. Kalean, jendea ikus nezakeen, BARREN eskuetan zuela. Lehen orrietan zuten denek begirada... eta gustura ziruditen. Nik maitekiro begiratzen nituen, eta ni, ni ere gustura nengoen. Atal honetako hitzak, zure eta nire hitzak irakurtzeko eskatzen nien denei, eta beraiek halaxe egiten zuten. Azken aldian izan dudan fantasia sexual bereziena izan zen hura.
Egia esan, eta aurreko imajinazio lantze hura ahaztu ezinik, bi aldiz pentsatu nuen preserbatiboen kontu hura, baina... keba! Oraingoan ez!
Harreman honek, atal honek, ez du horrelakoen beharrik.
Azal eta larru, gauzak diren bezalaxe; “oihal transparente” bat tarteko izan gabe. Halaxe bakarrik beteko baitzait nire fantasiatxoa.
Halaxe gure lehen aldia, eta hurrengoak. Kondoi gabe.
Bai? Ala berriz joango naiz botikara, Amaia?

**[ Kondoiak ikusi eta zu nire gogora ]**

AINHOA

**[ Zin egiten dizut ez dela nire fantasi sexual onena izan ]**

AMAIA

**AMAIA GORROTXATEGI**

Ez.
Gure lehen aldiak ez du horrelakorik behar, ezta hurrengoek ere!
Atal honetako hizkiek ez dute bananduko dituen ezer behar , batzuk besteekin nahastuko dira inolako erreparurik gabe. Letra xeheek larrien barruan elkarren berotasun eta hoztasuna sentituko dute eta lehen harreman honetako semeak izango dira hurrengo BARRENetan aurpegia eman beharko dutenak, gurasoen antzekoak, baina ezberdinak.
Zure fantasiatxoan murgildu naiz irakurtzeaz bat, baina ez zait irribarretxorik atera.
Nire eskolako maisu bat ikusi dut bere etxeko besaulkian eserita, BARREN eskuan, nire hitzak irakurtzean emaztea begiratu du eta nitaz gehiago espero zuela pentsatu du; nire ahizparen emozio irribarrea ikusi dut, eta bere konpromiso irribarrea ondoren. Zin egiten dizut ez dela nire fantasia sexual onena izan.
Baina ez dut zure ametsa zapuztu nahi!! Seguraski nire jarrera pesimista oker ibiliko da (beti bezala) eta beharbada laster *Zozoak beleari* ataleko “top hit” bihurtuko gara, Ainhoa!!
Beraz, zu lasai, ez joan botikara , ( ez erlazio honegatik behintzat! ). Irakurleak gure kondoirik gabeko erlazio honetako fruituak irakurtzeaz nazkatzen badira, eta guk seme gehiago izatea nahi ez badute, eros ditzatela beraiek kondoiak!!

> “ATZERA BIDEAN DABILTZAN BAKARRAK, INOIZ INORA JOAN EZ DIREN HAIEK DIRA”
>
> Antonio Machado

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Eskutitzak

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzeak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

## Planeta ezberdinak Elgoibarren

Batzuetan pentsatzen jartzen naiz ea zenbat planeta ezberdinetako jendea bizi garen Elgoibar honetan; ezin baita ulertu alkate (ustez) jeltzalea daukan herri bateko Udalak, diru publikoarekin ordaindutako agenda erdaldun bat bidaltzea herritarroi etxera. Zertarako Diputazioarekin bilerak Udalak euskalduntzeko? Zergatik halako mezpretxua Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dugun herritarroi? Ez ote dugu beste edozein herriko eta hizkuntzako biztanleek adina eskubide eta errespetu merezi? Noraino jasan behar da iraina? Noiz arte?

Deskuido bat dela esango dute, hankasartze arin bat baino ez... Nik behintzat, ene agenda itzuli egingo diot alkateari, ez baita ni naizen elgoibartar euskaldun honentzako pentsatutakoa. Agian beste planeta bateko norbaitentzako izango da.

**FELIX ETXEBERRIA "PARAPAN"**



## Herritar eta irakurleoi, urte berri on!

Konturatuko zineten moduan, edukiz eta itxuraz aldatuta azaldu zaigu astekaria 2005ko lehen zenbakian. Gainera, lantaldea osatu egin dugu. Herriko kazetari eta idazlea den Jasone Osoro izango da aurrerantzean BARRENeko zuzendaria. Aldaketa hauen helburua: herritarroi informazio eta zerbitzu hobea eskaintzea. Gure esku dagoen guztia egingo dugu baina, azkenean, zuek, irakurleok, izango zarete asmatu dugun ala ez esango duzuenak. Mila esker!

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**


[b]arren

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jasone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.275 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*




**ESKERTZA**

2004ko abenduaren 23an, 92 urte zituela hil zen
*Josefa Bastida Arakistain*en
seme-alabek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## TXALOAK

Herritar talde batek Gabonetako ekitaldiak prestatzen parte hartu duen jende guztia txalotu nahi du: "Batetik, Elgojaiotza taldea 25 urtez jaiotza mekanikoa antolatzen aritu delako txalotu nahi dugu. Urtetik urtera jaiotza ederragoa antolatzen baitute. Parrokiako katekistak bestetik, Errege bezpera egunean antolatutako kabalgatagatik. Herriko ume guztien ilusio aurpegia ikusteak pena merezi du, jarraitu horrela!". Bestalde, Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeek, Olentzeroren kalejira antolatzen eta prestatzen parte hartu zuten guztiak eskertu nahi dituzte. Azkenik, Sabin Osorok ere aipamen berezia merezi du, Kultur Etxeko sotoan antolatu zuen erakusketagatik. Berak eskuz eginiko 68 jaiotza dotore jarri zituen erakusgai. Zorionak eta eskerrik asko guztioi!

## KEXAK

Begira nola esnatu zen urtarrilaren 3an Andraderen eskultura. Horman pintadak egiteaz gain, Kultur Etxe aurrean dagoen eskultura ere pinturaz beteta aurkitu genuen. Herriko apaindurak denon artean zaindu egin behar ditugu. Mesedez, errespetu apur bat!



## GALDERAK

Noiz jasotzen dute erabilitako olioa? Emakume batek esan digunez, noizean behin kamioi bat ikusten du Plaza Handian etxean erabilitako olioa jasotzen, baina ez daki lan hori egiteko egun konkreturik duen ala noizean behin bakarrik etortzen den. Udalera jo dugu emakume honen galdera argitu nahian, eta esan digutenez, hilero jasotzen dute erabilitako olioa, hilabeteko 3. ostiralean hain zuzen ere. Goizean goiz kamioia etortzen da Plaza Handira, eta bertan egoten da eguerdi aldera arte. Beraz, interesatuek bertara eraman dezakete erabilitako olioa.

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12



**ESKERTZA**

2004ko abenduaren 25ean, 89 urte zituela hil zen
*Francisca Barruetabeña Plaza*ren
alabek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Bote prontoan



## URRUZUNOREN luma

### Desberdina

Maiderri kontzertuetan atzera begira egotea gustatzen zaio, tabladuari bizkarra emanez. Asierrek telebista itzaltzen du hari begira pentsatzeko. Peru amorratu egiten da hegazkinek zeruan marra txuri bat uzten duten bakoitzean. Urtzik koadernoa ateratzen du parrandetan, eta mozkorren erreakzioak apuntatzen ditu, mozkortuta. Mikelek eserita egiten du pixa. Anttonek, txikitan, mototx bat egiten zuen kopeta gainean; Txiribitonek bezala. Maria ez da sekula depilatzen. Alainek bere txotxongiloarekin hitz egiten du, politikaz. Sandrak, liburuak erostean, idazlearen argazkia mozteko eskatzen dio saltzaileari, nahi baino normalagoak, normalegiak direlako beti. Unai amonak jositako artilezko galtzerdiak jantzita masturbatzen da. Enekok hiztegia irakurtzen du eta gustatzen ez zaizkion hitzak borratzen ditu Martak inork ez dakien hizkuntza bat asmatzen duen bitartean. Paulari isilik egotea gustatzen zaio.

Desberdinak omen dira. Behar dute normal ustekoek aitzakiaren bat normal izateko. Hori bai, eros beza zapata modelo berriena, egin beza inork ez duen ile orrazkera, tatuaia, piercing-a. Ez bedi normala erori berdintasunaren arruntasunean!

*Uxue Alberdi*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### JABI LEON

KAZETARIA

• **2005. urtean zein albiste irakurri nahi zenuke egunkariaren azaleko titularrean?**
Euskal gatazka iraganeko gauza dela.

• **Kirolean?**
Euskal selekzioak ofizialtasuna lortu duela.

• **Politikan?**
Euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitzeko aukera dugula.

• **Kulturan?**
Askatasun adierazpena errespetatu egiten dela.

• **Mundu mailan?**
Gaur egun 200 gatazka baino gehiago daude sutan munduan zehar. Utopia bat izan arren ba... guztiak amaitu direla.

• **Elgoibarko kartan?**
Herriko gazte guztiok babes ofizialeko etxea izateko aukera dugula.

• **Euskal Herrian?**
Falta diren guztiak aurtengo San Ferminetan zapi gorria janzteko aukera izan dutela.

• **Espainia mailan?**
Espainiako gobernuak onartzen duela euskal herritarrok hartutako erabakia.

## komikia




*Ander eta David*

## [AKORDATZEN NAIZ]



### FELISA BERGARETXE

1915ean jaioa

### “Minigonia”

Akordatzen naiz minigonia modan ipiñi zan garaixa. Nazkia ematen zidan! Gaur egunian ere etxata batere gustatzen sekulako eskotiarekin titixak erdi bistan daukezela azaltzen diranak. Nik agindu bihar baneu, telebisiuan daneri uniformia ipiñiko niueke. Ez da bihar dana baiño gehixago erakutsi bihar. Umientzako onartu neike, baiña emakumientzat ez. Askok hanka zatarrak daukez, eta hori tapau egin bihar da. Gonia, gitxienez belauneraiño izan bihar da, hortik gora multia ipiñiko neuke. Gehixegi erakustia zatarra da. Rebistetan ere dana erakusten azaltzen diranak etxataz gustatzen.



Andrak prakekin ibiltzia ondo ikusten dot. Media gitxixago gastatzen dira hola. Gaiñera, hanka zatarrak daukazenari disimulau egitten dio. Hoberako dan guztixa, ondo dago. Neri gauza politak gustatzen jataz. Batzuek, modia dala-ta, edozer ipintzen dabe.

## [GURE BERBAK]

Jesus Mari Makazaga

Irakurle arretatsu hori:

Aurrerantzian, Elgoibarko euskeriaren berezittasun batzuk jasotzen ahaleginduko naiz. Adiñekuentzat, euren euskeria paperian jasota irakurtzeko aukeria izango da; gaztiaguentzat, berriz, entzunak bai baiña igual erabiltzen ez dakixen berbak, esamoldiak eta abarrak hobeto ezagutzeko aukeria izatia nahi neuke nik. Batzuetan, esamoldien zaku hondorik gabekotik etarako dittut formak; beste batzuetan, elkarrizketetan erabiltzen dittugun esklamaziuen multzotik; edo berben kutxatik, hiztegittik. Hizkuntzaren kutxetatik etarako dittut berbok eta abarrok, altxor bat balira bezela. Distira pixka bat etaratzen ahalegindu gaittezen, ba, ugertzen ari jakuzen berba eta esamoldieri, esku-eskura daukagun altxorrari. Hona aurrerapen bat:

*– Bi hillabeteko oporrak daukadaz.*

*– Hori dok pagotxa, hori!*

*– Egidak lan hori bixarko. – Hi, ondo eta azkar, usuak egitten jok egan, eh!*



### ESKERTZA

2004ko abenduaren 28an, 81 urte zituela hil zen *Antonio Eugi Antxorena “Albitxuri”*ren emaztea, semeek eta gainerako sendiak, bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





### ESKERTZA

2005eko urtarrilaren 2an, 90 urte zituela hil zen *Dominica Arambarri Mendizabal*en sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# ATZERA BEGIRA AURRERA EGITEKO

"IZARREN HAUTSA 40 URTEAN" LIBURUA AURKEZTUKO DU DATORREN OSTEGUNEAN, HILAK 20, ELGOIBARKO IZARRAK. IMANOL LARRAÑAGAK, ELKARTEKO DINAMIZATZAILEAK MAKINA BAT ELKARRIZKETA EGIN ETA KONTAKIZUN POLITA MARRAZTU DU. ERRETRATU ETA HITZEKIN JOSIA, EUSKARAREN MATAZAK ELGOIBARREN SORTU DUEN ARTXIBOA ESKURAGAI IZANGO DA LIBURU HONI ESKER. IMANOLEKIN IZAN GARA GEROARI BEGIRA ELKARTEAK JORRATUKO DUEN LASTERKETA MARATOIA EDO ESPRINTA IZANGO DEN JAKIN NAHIAN.



## IMANOL LARRAÑAGA ELGOIBARKO IZARRAKO DINAMIZATZAILEA

# «Elkartea etapa baten atarian ikusten dut»

**"Izarren hautsa 40 urtean" liburua aurkeztuko duzue. Zertarako?**

Berrogei urte hauetan zer egin den jaso eta egindako lana herritarrei ezagutzera ematea da gure asmoa.

**Elkarrizketaz jositako liburua da.**

Jendeak erraz irakurriko zuen liburua egin nahi genuen, eta elkarrizketa formula aproposa iruditu zitzaigun. Herritarren edo protagonisten ahotik kontatu dugu liburuak jasotzen duen ia guztia. Errekonozimendu bat ere bada hainbeste urtean euskararen alde lan egin duten guztientzat.

**Atzera begira aurrera egiteko?**

Dudarik gabe. 40 urtean gauza asko eta asko egin da. Jendeak badaki, adibidez, ikastola edo BARREN Elkarteak sortutakoak direla, baina beste hamaika proiektu eta ekimen ere jarri dira martxan 40 urteotan. Une egokia da Elkartearen memoriari astindu bat eman eta aurrera begira jartzeko.

**"Krisi" hitzak aldaketa esan nahi omen du. Elkartearen kasuan ere bai?**

Nik dakidala, bi krisi bizi izan ditu Elgoibarko Izarrak 40 urte hauetan. Lehenengoa orain dela hamalau urte izan zen, eta, orduan, etapa berri bat hasi zen Elkartearentzat proiektu berriekin: Barren, Atxutxiamaika.... Bigarren krisia, Toletxeren porrotak ekarri zuen. Zorionez gainditu dugu eta orain bide berriak aztertu nahi ditugu.

**Memoriak ibilbide baten amaieran kaleratzen dira batzuetan, eta, beste batzuetan, etapa bati agur esateko. Zein da oraingo kasua?**

Gure kasuan Elkarteak oraindik ere lan asko duela uste dut, beraz, gurea ez da amaitu. 50. urteurrenari begira, funtzionamendua eta helburuak definitu behar ditugula uste dut. Izan ere, Elkartea gaur egun dena 90-91 urteetan erabaki genuen, eta, ordutik, gizartea asko aldatu da. Une batez geratu eta etorkizunean zer izan eta egin nahi dugun aztertzeko momentuan gaude. Elkartea etapa berri baten atarian ikusten dut.

**Eta jende berria elkartu nahi al duzue atapa berri horretan? Izan ere, Bazkide kanpaina laster jarriko duzue martxan, ezta?**

Hori da. Gaur egun 590 bazkide inguru dauzka Elkarteak. Kopuru polita da, baina herrian jende asko dago, gazteen artean batez ere, euskaltzalea dena eta Elkarteko bazkide ez dena. Haiengana iritsi nahi dugu hilaren 20an ekingo diogun kanpainarekin. Gure nahia hiru-lau urtetan 1.000 bazkide izatera iristea da. Zenbat eta gehiago izan orduan eta sinesgarritasun eta eragin handiagoa izango du Elgoibarko Izarrak.

# "IZARREN HAUTSA 40 URTEAN"

Ostegunean, urtarrilak 20, aurkeztuko du Elgoibarko Izarrak *Izarren hautsa 40 urtean* liburua. Bertan, elkarrizketez gain, makina bat argazki ere ikus daitezke. Imanol Larrañagak bi etapatan banatu du kontakizuna: bata, 1963-1990 urte bitartekoa, eta bestea 1991-2004. Azpian ikus dezakegu etapa bakoitzetik ateratako erretratu bana.



*1. etapa: Ikastola asentatzea eta indartzea izan zen Elkartearen lehen zeregin garrantzitsua*



*2. etapa: Gurean Bai hitzarmenaren bidez, herriko sektore diferenteen konpromisoa bultzatu nahi du Elgoibarko Izarrak*

[b]

## «Barren ausartagoa egin nahi dugu»

**12 urte bete ditu Barrenek. "Eraberritu ala hil". Bai?**
Hasieratik erabaki zen astekariari hiru-lau urtetik behin astindu bat eman eta itxura eta eduki berriekin kaleratzea. Arima bera mantenduz, BARRENek herriko gertakarien kronista izaten jarraituko du, baina aurpegi berriarekin.

**Soineko berri hutsa izango da ala edukian ere nabarituko da?**
Informazioa era diferentean eman nahi dugu. Ez goaz astekaria aldatzera, inork ez dezala pentsatu ezer asmatzera goazenik, baina informazioa emateko modu berritzailea jarri nahi dugu martxan, ausartagoa, testu gutxiagorekin....

**Lantaldea ere osatu duzue.**
Bai, Jasone Osoro hartu dugu aldizkariaren etapa berriari tira egiteko. Bera da zuzendari berria eta bere erantzukizuna izango da formaz eta edukiz aldaketa berri hori bermatzea. Gainera, BARRENek kanpo ekintzak ere antolatuko ditu.

**Adibidez?**
"Ezagunak Lagun" programa hasiko da laster. Zer den? Politika, telebista, ekonomia, euskalgintza eta kulturgintza munduko aurpegi ezagunak ekarriko ditugu Elgoibarrera.

**Jendeak hasierako ilusio berarekin jasotzen al du BARREN?**
Ez dut uste, baina hori normala da. Proiektu berri baten aurrean beti dago espektatiba eta ilusioa, baina urteak pasatu ahala, jeitsi egiten da. BARREN txorroko urarekin konparatuko nuke nik: ez dagoenean botatzen dugu faltan. BARRENek, nire ustez, leku bat irabazi du Elgoibarko gizartean.

## ZERGATIK eta ZERTARAKO BAZKIDE?

1. Euskal Herri euskalduna ezagutu nahi dugunok, gure herritik hasi behar dugulako.
2. Elgoibar ez delako berez euskaldunduko. Gure herria euskaldunduko bada, erabaki kontziente eta kolektibo baten ondorioz izango delako.
3. "BARREN, Gurean Bai, Atxutxiamaika eta beste proiektuei gure babesa eta laguntza eskaini nahi diegulako".
4. "Elgoibarko Izarrako bazkide izatea, euskararen alde egiteko keinua delako".
5. Elgoibarko Izarrak egin duena asko bada ere, egiteko geratzen dena gehiago delako

## PERTSONAIA



### Uxue Alberdi

Errenteria Hiria Ipuin Lehiaketaren XXII. deialdia irabazi du Uxue Alberdik "Amadeus" ipuinari esker. Bertan, bizikleta lapur gazte batek Copenagera egiten duen bidaia bateko bizipenak kontatzen ditu. 800 euro poltsikoratu ditu Uxuek lehen sariagatik eta baita 25 urtez azpiko lehiaketari zegozkion beste 240 euro ere. Honakoa ez da literaturgintzan irabazi duen lehen saria izan: Eibar Hiria eta Bergarako Maitasun Gutunen lehiaketan ere, sarituak izan dira bere lanak. Kazetaritzako ikaslea da eta Erasmus bekari esker Suedian ari da 3. ikasturtea burutzen.

AZOKAREN ALDEKO HERRI PLATAFORMA

# "Elgoibar bizirik" herri plataforma aurkeztu zuten Herriko Antzokian




Elgoibarko sindikatu, alderdi politiko eta beste hainbat kolektibotako ordezkariek, "Elgoibar bizirik", merkadilloaren aldeko herri plataforma aurkeztu zuten joan zen asteartean, urtarrilaren 11n, Herriko Antzokian. Partaide bakoitzak bere erara, denek mezu berbera zabaldu zuten: "Merkadilloaren arazoa denon arazoa da, eta denok batera borrokatu behar dugu, Sigmara eraman ez dezaten"

**Aurrerantzean egin beharrekoak**

Aurkezleek azaldu zutenez, aurrera begira, lan handia dago egiteko. Besteak beste, ekintza aldarrikatzaile-festiboak eta informatiboak antolatuko dituzte, herriko kolektiboekin eta Udal Gobernuarekin bilerak proposatu eta herri galdeketa bat egiteko asmoa daukate.

Azken hau, Udalarekin adostuz, Europako Konstituzioa bozkatu behar den egun berean egingo lukete, jendeari azoka Sigman ala Plazan nahi duen galdetuz. Plataformako kideek herritar guztien laguntza eskatu zuten, eta denei luzatu zieten plataformako kide izateko gonbitea.

**139**

### Denda euskararen alde

Gurean Bai Merkataritzak, proiektuko dendetako erosleentzako, euskarazko egutegi txikiak eta pegatinak banatu ditu Elgoibarko 139 dendatan. Guztira 14.000 egutegi eta 12.000 pegatina banatu dituzte.

## astekoARGAZKIA



Ostegunetako azoka Sigman jartzeko lehenengo eguna izan zen atzo, urtarrilak 13, baina saltzaileek tinko eusten diete beren posturari, eta ez zen inor Sigmara joan. Xixilion Kalea hutsik aurkitu genuen goizeko 9:00etan.

Merkatariek denetarik egin duten arren, Udalak ez du bere erabakia atzera bota, eta momentuz behintzat, azoka Plaza Handian jartzeko debekua mantentzen du.

Bitartean, azokako merkatariak Plaza Handian zeuden, ostegunero ohi duten bezala leku aldaketaren aurka protesta eginez.

# 800.000 euro inbertituko ditu Udalak Ubitarte Buruko lurrazpiko pasabidean eta haur parkeetan



Elgoibarko Udaleko Gobernu Batzordeak Tecsa enpresari egokitu dizkio Ubitarte Burun trenaren azpiko pasabidea burutzeko lanak. Egitasmo honek 714.536,12 euroko kostua izango du, eta lau hilabete inguru beharko dira lanak burutzeko. Obra honi esker, Arregi-Torre auzoa eta Ubitarte-Gain inguruetan sortuko den urbanizazioa, Santa Ana kalea, Antonio Arrillaga kalea eta Trenbide kaleekin lotuko dira.

**87. 723 euro haur parkeentzat**

Bestalde, Elgoibarko Udalak herri guztian zehar haurrentzako parkeak konpondu eta berriak egiteko obrei ekingo die urtarrilean. Yor, S.A. enpresak egingo ditu obra hauek eta 87.723 euroko aurrekontua izango dute.

Guztira 1.000 metro karratu inguru hartuko dituzte hamar eremutan ipiniko diren jolas parke hauek. Aurreikuspenen arabera, otsailaren amaiera alderako bukatuko dituzte obrak.

## Malaysiako espainiar arduraduna IMHn



Antonio Garcia, Espainiak Malasian duen Merkataritza eta ekonomia bulegoko zuzendariak IMHko ikastetxea eta enpresak bisitatzera hurbildu zen, makina erremintaren sektorea eta institutua zuzenean ezagutu eta proiektuaren jarraipenaren berri izateko.

**Langileentzako ikastaroak**

Bestalde, langileei zuzendutako 240 ikastaro eskainiko ditu IMHk uztailera bitartean. Interesatuek www.imh.es web gunean lortu dezakete informazio gehiago, edo 943 74 82 66 telefonoan (Leire edo Ane).

## MOTZ-MOTZIAN

### Gabonetako zozketak

**Miski**

Mari Karmen Garate izan da Eroskik emandako otarre ederraren irabazlea. Aurten 10.000 euro inguru bildu ditu Miski Elkarteak, eta martxoaren 3an abiatuko da Gemma Agirregomezkorta Perura.

**Lagun Taldea**

Erreintegroa, Lagun Taldeak Aita Agirre plazan duen lokalean kobratu daiteke, astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 20:00etara.

**C.D. Elgoibar**

1. saria 20.691 (Erreserba 21.262)
2. saria 24.157 (Erreserba 05890)

**Parrokia**

Parrokiako Loteriako saria Euskadiko Kutxan kobratu daiteke urtarrilaren 10etik 22ra bitartean, goizez edo arratsaldez.

### KZ gunea urtarrilean

Elgoibarko KZ gunea goiz eta arratsaldez irekiko dute urtarriletik aurrera. Beraz, ordutegi berria ondorengoa da: 9:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara. Bestalde, ikastaro berriak jarri dituzte martxan: IT KZ Gunea (Interneten hasteko ikastaroa), Nagusiweb (interneteko oinarrizko erabilera 50 urtetik gorakoentzat), eta hainbat mintegi ere eskainiko dira, besteak beste, "Ardoa ezagutu" eta "Messenger" izenekoak. Informazio gehiago 943 74 88 28 telefonoan.

### Risaterapia

2005 urtearen hasierarekin batera, risaterapia ikastaroaren beste saio bat jarriko da martxan Aubixan. Ikastaro honetan tentsioak askatzen, depresioak arintzen, eta egonkortasun emozionala lortzen irakatsiko dute, osasuna, ilusioa eta ongizatea zainduz. Informazio gehiago 943 74 17 15 telefonoan (Jose Zuazubizkar).

EUSKO LEGEBILTZARRAK IBARRETXE PLANA GEHIENGOZ ONARTZEAK BAZTERRAK AZTORATU DITU

# Zer iruditzen zaizu euskaldunon etorkizuna herri galdeketa bidez erabakitzea?

**MARI CRUZ RAMAL**
Kamareroa
[37 urte]



"Oso ondo iruditzen zait. Herritar bakoitzari bere iritzia emateko aukera eskaintzea oso ondo dago. Gero gehiengoaren erabakia onartu beharko da."

**JAVIER BLAZQUEZ**
komertziala
[43 urte]



"Oso ondo, horretarako bizi gara demokrazia batean, ezta? Egia esan, ez dut Ibarretxeren plana ezagutzen, telebistan entzundakoa bakarrik."

**IÑIGO EGUREN**
Enkofratzailea
[33 urte]



"Ondo dago, norberak bere iritzia emateko eskubidea izatea garrantzitsua da. Ibarretxeren plana ez dut ezagutzen, ez zait politika batere interesatzen."

**ION IRIONDO**
Fisikoa
[41 urte]



"Oso ondo. Ibarretxeren Plana ez dut ezagutzen, prentsan atera dena bakarrik. Iritzi oso desberdinak daude eta irakurri egin beharko dut nire iritzia izateko."

## %28 BAI ala EZ %72

## Telezaborra deitzen dena ikusten al duzu?

"Telebistaren ehuneko handia telezaborra dela kontutan hartzen badugu, nork ez du telezaborra inoiz ikusi? Gainera oso "komodoa" da, ezertan pentsatu gabe, telebistak botatzen duena "tragatzea". Zorionez, nik ez dut telebista gehiegi kusten."

" Ez, ez dut era horretako programarik ikusten, nahiz inoiz edo behin ikusi izan.
Telezabor hori iraingarria iruditzen zait giza adimenarentzat, eta laidogarria guztiz.
Gutxieneko giza baliorik eta etikarik errespetatzen ez duela iruditzen zait. "

Datorren asterako....

**Urtarrilaren 13an jarri zuen martxan Udalak Xixiliongo azoka. Joango al zara Sigmako azokara?**

Erantzunak: barren@elgoibarkoizarra.com edo Barreneko postontzian.

## JAIOTAKOAK



**Mikel Gonzalez Tejero**
[Abenduak 3]
Mirari eta Endika



**Uxue Etxeberria Zabalo**
[Abenduak 9]
Deñe eta Alfredo



**Danel Urcaregui Alvarez**
[Abenduak 11]
Juan Maria eta Yolanda



**Leire Casares Ordoñez**
[Abenduak 17]
Jose Manuel eta Itziar



**Oier Galindo Ramon**
[Abenduak 18]
Felix eta Nora



**Iker Alberdi Hurtado**
[Abenduak 28]
Fernando eta Edurne

**Noman-Hussain Khokhar Awan**
[abenduak 10]
Mazhar-Hussain eta Kubra-Bibi

## HILDAKOAK

Ignacio Loyola Oria• [ 70 urte ] • Abenduak 1
Luis Tudanca Ballestero • [ 76 urte ] • Abenduak 9
Jesus Unanue • [ 64 urte ] • Abenduak 10
Salud Toledano • [ 89 urte ] • Abenduak 10
Luisa Mugerza • [ 83 urte ] • Abenduak 13
Inocencia Garcia • [ 84 urte ] • Abenduak 14
Angeles Gurrutxaga • [ 89 urte ] • Abenduak 14
Evarista Ibarluzea • [ 98 urte ] • Abenduak 16
Jose Antonio San Martin • [ 77 urte ] • Abenduak 19
Francisco Mugerza • [ 73 urte ] • Abenduak 21
Josefa Bastida Arakistain • [ 92 urte ] • Abenduak 23
Francisca Barruetabeña • [ 89 urte ] • Abenduak 25
Antonio Eugi • [ 81 urte ] • Abenduak 28

## EZKONTZAK

Guillermo Pedroche eta Saray Soto [ Abenduak 4 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@elgoibarkoizarra.com** helbide elektronikora.


# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

*TANATORIOA*



*KUTXAK · TRASLADOAK ·KOROAK*

**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
**Tel.:** (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

# ALINA SANCHEZ

## KUBA [ERTAMERIKA]

# «Kubako bizimodua ez zitzaidan gustatzen, ez nengoen gustura»



ALINA SANCHEZ KUBATARRA DUELA 6 URTE IRITSI ZEN ELGOIBARRERA. MAITASUNAREN INDARRAK BULTZATUTA IRITSI ZEN GURE ARTERA, ETA GAUR EGUN, HERRITAR BAT GEHIAGO DA. JESUS BERE SENARRA, ETA IOSU SEMEAREKIN BIZI DA. 34 URTEKO EMAKUME KUBATAR HONEK, BERE ESPERIENTZIA KONTATU DIGU GAURKOAN ETA HITZ EGITERAKOAN EZPAINETAN NABARI ZAION IRRIBARREAK, ELGOIBARREN ZORIONTSU DELA ERAKUSTEN DU. ALINAK ESAN DIGUNEZ, EZ DA BATERE DAMUTZEN HONA ETORRI IZANAZ.

**Noiz etorri zinen Elgoibarrera?**

1999ko maiatzaren 15ean iritsi nintzen. Printzipioz, urtebeteko proba egiteko asmoa neukan, eta ez banintzen ondo moldatzen, berriz itzuliko nintzen Kubara. Zorionez, gauzak ondo joan dira.

**Zein izan zen zure etorreraren arrazoia?**

Maitasuna, maitemindu egin nintzen. Honetaz gain, askatasun apur baten bila ere etorri nintzen. Beste herrialde batzuk ere ezagutzen nituen, eta Kubako bizimodua ez zitzaidan gustatzen. Bertako ideiak ez dira zuzenak, zentzu askotan oker daude. Behin handik irtendakoan, bertara itzultzea gogorra da.

**Zaila izan al zen erabakia hartzea?**

Ez. Beste herrialde batzuetako bizimodua ezagutu ostean, Kuban ez nengoen batere gustura. Konparaketak egiten nituen uneoro, jende askorekin haserretzen nintzen, eta gauza guztiak derrigorrez egiten nituen. Nire senideekin, ordea, oso ondo konpontzen nintzen.

**Aurrez Kubatik irtenda zeuden, beraz...**

Bai, hiru urtez Sobietar Batasunean bizi izan nintzen. Baina ez zitzaidan gehiegi gustatu. Tristeagoa da, iluntzeko 18:00etan kalean ez dago ezer. Hemengo ohiturak gehiago gustatzen zaizkit.

**Senide asko utzi al dituzu Kuban?**

Bai, nire familia guztia dago han. Gurasoak, ahizpa, ilobak, osaba-izebak, lehengusuak...

**Joaten al zara beraiek bisitatzera?**

Bai, urtero joaten saiatzen naiz. Nire semeak hiru urte dauzka, eta bi aldiz joan da nirekin, hango senideak ezagutzeko.

**Nola hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo. Beti esan ohi da hemengo jendea oso itxia dela, baina nirekin denak oso ondo portatu dira. Denetariko jendearekin egin dut topo, baina ez dut diskriminaziorik sentitu. Elgoibartarren artean integratzeko ez dut inolako arazorik izan.

**Zer izan da gehien gustatu zaizuna?**

Gauza asko. Janaria adibidez oso goxoa iruditu zait, oso ondo jaten da hemen. Bestalde, oinetakoek zoratzen



naute. Kuban oso zaila zen oinetakoak erostea, nahiz eta dirua eduki, askotan ezin izaten nituen erosi, edo nire neurrikoak ez nituen aurkitzen. Paisaiak, hondartzak eta jendea ere oso gustuko ditut.

**Espero zenuena aurkitu al duzu hemen?**

Bai. Banekien zer aurkituko nuen, eta ez nau ezerk harritu.

**Oso desberdinak al gara euskaldunak eta kubatarrak?**

Ez. Kubatarrak Espainiar afrikarren arteko nahasketa bat gara, beraz, antzekotasun handiak dauzkagula uste dut. Espainiar asko dago Kuban.

**Zertan diharduzu gaur egun?**

Elikadurako aholkulari bezala egiten dut lan Madrilgo dietetika enpresa batentzat. Elgoibarren daukagu bulego bat, eta momentuz oso gustura nabil. Nik Kimika ikasketak egin nituen, baina horretan lana aurkitzea oso zaila da.

**Asko aldatu al da zure bizitza?**

Bai, erabat, baina aldaketa hoberako izan da. Gaur egun senarra daukat, seme bat, lana eta gainera etxekoandrea ere banaiz. Kuban etxeko txikiena nintzen, eta dena eginda ematen zidaten. Hemen ardura gehiago hartu behar izan dut. Hala ere, nire senarrak askotan esaten dit arduragabea naizela, baina nire burua askoz helduago ikusten dut.

**Euskara ikasten ere hasi zara...**

Bai, gauza dezente ikasten ari naiz. Berandu hasi naiz, baina orain arte ez dut denborarik izan. Informatika eta administraritza ikasketak egiten aritu naiz. Gainera, lehen ez nuen beharrik ikusten, gaztelerarekin ez neukan arazorik. Semea euskaraz hitz egiten hasi zitzaidanean konturatu nintzen ikasi egin behar nuela.

**Damutu al zara hona etortzeaz?**

Ez, erabaki garrantzitsua izan zen, eta ez naiz batere damutzen.



KUBA

- Hiriburua: La Habana (2.221.000 biztanle)
- Azalera: 110.860m$^2$
- Biztanleria: 11.300.000 (zuriak %66, beltzak %12, mestizoak %22)
- Dentsitatea: 101,9
- Bizi itxaropena: 77 urte
- Klima: Subtropikala
- Alfabetatze maila: %99,8
- BPG: 9020 milioi dolar. 805 dolar biztanleko.



*Alina eta Jesus, senarra (lehenengoa ezkerretik), Elgoibarko familiarekin Londresen.*



*Kubako familiari ahal duen guztietan egiten dio bisita Alinak bere seme Iosurekin.*

elkarrizketa...

# Miren Guillo

GIZARTE HEZKUNTZA IKASKETAK AMAITU DITU ETA NOLA AMAITU GAINERA! EXPEDIENTE ONENAREN SARIA EMAN DIOTE UNIBERTSITATEAN. GIPUZKOAN 39 IKASLEK JASO DUTE SARI HAU. ORAIN, GIZARTE PEDAGOGIA IKASTEN HASI DA. BADIRUDI LIBURU ARTEAN MURGILDUTA EROSO SENTITZEN DELA ELGOIBARTAR GAZTE HAU.

## "Nota onak izateak ez ditu lanerako ateak irekitzen"



**Espediente akademiko onenaren saria jaso berri duzu unibertsitatean. Zer suposatu du horrek zuretzat?**

Ez nuen espero, ez nekien sari hau ematen zutenik ere! Gutun bat iritsi zitzaidan nire promozioko notarik onenak atera nituela eta saria eman zidatela jakinarazteko, eta poz handia hartu nuen.

**Zein abantaila emango dizkizu sari honek?**

Ez dakit, baina ez dut uste lan mundura begira abantailarik eskainiko dizkidanik sari honek. Lanean hasteko esperientzia eskatzen dute, notak ez daukate zerikusirik.

**Gizarte Hezkuntza ikasketak egin dituzu. Zertan datza?**

Gizarteko egoerak pertsona konkretuei edo kolektibo desberdinei sortzen dizkieten beharrei erantzuna ematea da helburua, eskuartzean lan eginez. Hezkuntza ez formalean kokatzen da, eta hiru esparru nagusi barneratzen ditu: Helduen hezkuntza, gizarteratzea eta gizarte kultur dinamizazioa.

**Espero zenuen bezalakoa izan al da?**

Hasi aurretik ez nekien nolakoa izango zen, baina oso gustura geratu naiz. Ez da asko ezagutzen egia esan,, ikasketak amaitu ostean konturatzen zara benetan zer den gizarte hezitzailea izatea.

**Zer izan da gehien gustatu zaizuna? Eta gutxien?**

Gehien landu ditugun gaiak. Besteak beste, gizarte gaiak, kolektibo desberdinen ezaugarriak, psikologia, prebentzioa, hezitzailearen gaitasunak eta gizarteratzea landu ditugu. Gutxien berriz, nire ustez, unibertsitatea errealitatetik oso urrun dagoela, ikasketak amaitu ostean ez gaude oraindik lana egiteko prestatuak.

**Gomendatuko al zenizkioke ikasketa hauek unibertsitatera doan bati?**

Benetan gustuko badu, bai. Lana egon, badago, baina lan egonkorra bilatzea oso zaila da. Ez dago oso ondo zehaztuta, eta psikologoek, gizarte langileek edo boluntarioek egiten dituzte lan hauek. Hala ere, sinisten duenak ez dezala atzera egin.

**Italian izan zara Erasmus egitasmoarekin. Nolako esperientzia izan da?**

11 hilabetez egon naiz Erroman, eta sekulako esperientzia izan da. Bidaiatzea izugarri gustatzen zait, eta merezi izan du. Denei gomendatuko nieke Erasmusekin kanpora joateko.



2005-I-14

# BARREN

## Zure bizitzaz nazkatuta?

EGUNEROKOTASUNAK ASPERTU EGIN ZAITU?

ESPERIENTZIA
BERRIEN
GOSE
ZARA?

## GUK EMANGO DIZUGU AUKERA!

14 eta 30 urte bitartean baldin badituzu,
eta esperientzia berri baten parte hartu nahi baduzu,
idatzi barren@elgoibarkoizarra.com helbidera
eta eman zure izena!

bizitza berri bat zure zain dago!

## IÑAKI ARMENDARIZ FILATELIA ZALETUA

# «Espainiako seilu bildumarik onenak batu ditugu 25. urteurrena ospatzeko»







**25 urte bete dituzue. Nolakoak izan ziren hastapenak?**

1980. urtean sortu genuen elkartea. Arrieta, garaiko alkateak, filatelia zaletua zenez, Eibarko Arrate Filatelia Elkartearekin harremanetan jarri eta San Antonetan Elgoibarren erakusketa bat antola zezaten eskatu zien. Liburutegian egin zen erakusketa. Erakusketa hura abiapuntutzat hartuz Arrate Elkarteko kide ginen elgoibartar batzuek bildu eta Elgoibarko Filatelia Elkartea sortu genuen. 15 lagun inguru izango ginen bazkide fundatzaileak.

**Eta egun, zenbat bazkide zaudete?**

59 bazkide gara, nahiz eta une hobeak bizi izan ditugun, 92 bazkide izatera ere iritsi izan baikara.

**Zerbait berezia prestatu al duzue 25. urteurrena ospatzeko?**

Espainiar Estatuan aurki daitezkeen bildumarik onenak biltzen saiatu gara. Guztira 15 bilduma izango dira, guztiak euskal jabeenak. Batzuek nazioarteko sariak jaso dituzte eta seik urrezko dominak eskuratu dituzte, filatelia munduan eskuratu daitekeen saririk garrantzitsuena. Erakusketan 36.000 euro baino gehiagoko balioa duten bildumak daude.

**Zein izango da aurtengo erakusketaren ezaugarri nagusia?**

Bilduma oso teknikoak izango dira. Agian ez da horren erakargarria izango gehiegi ulertzen ez duen jendearentzat, ez baitira bistarako seilu ikusgarriak, baina adituak asetuta geratuko dira hemen ikusi ahal izango dutenarekin, maila oso altuko bildumak baitira eta oso zaharrak. Aurrefilatelia garaiko pieza asko lortu ditugu, lehen seiluen aurrekariak, alegia.

**Nork sortu zituen seiluak?**

Sir Rowland Hill ingelesak asmatu zituen 1840. urtean. "Penny black" izeneko zigilua izan zen lehenbizikoa. Seiluak sortu aurretik, eskutitza jasotzen zuenak ordaintzen zuen. Postariek herriko plazara ailegatu eta eskutitzak norentzat ziren ozenki esaten zuten. Norbere izena entzutean eskutitza jasotzeagatik ordaintzen zuen bakoitzak. Asko, ordea, esan beharrekoak kartazalean idazten hasi ziren, eta hartzaileek ez zuten eskutitza erosi beharrik jadanik. Hortaz, pikareska hori saihesteko sortu ziren zigiluak.

> **[ Sir Rowland Hill ingelesak asmatu zituen seiluak 1840an ]**

**Gaur egun asko erabiliko da internet seiluak bilatu eta erosteko. Ez al da paradoxikoa?**

Bai halaxe da, interneten nahi dituzun zigilu ia guztiak aurki ditzakezu. Dena dela, benetako filatelia zaletuek eskutitzak idatzi eta seiluarekin bidaltzeko ohiturari eusten diote, betiere seilua itsatsiz, eta ez correos-eko pegatinak.

**Nola ikusten duzu filateliaren etorkizuna?**

Hemendik aurrera asko aldatuko da seiluak biltzeko modua. Gaur egun, jadanik, sortzen diren seilu gehienak filatelikoentzat egiten dira.

### "PAS DE BASQUE" DANTZA IKUSKIZUNA

# 15 dantzari elgoibartarrek parte hartuko dute Urbeltzek zuzendutako saioan

San Anton jaietan tradizio bilakatu diren hainbat ekintza antolatzen dira urtetik urtera: filatelia elkartearen zigilu erakusketa, San Anton Pilota Txapelketa edo Ertzantzaren Bandaren kontzertua, adibidez. Aurten, ordea, badago berrikuntzarik egitarauan. Juan Antonio Urbeltzen eskutik "Pas de Basque" dantza ikuskizuna iritsiko da zapatu honetan, hilaren 15ean, Herriko Antzokiara (22:15). Urbeltzek zuzentzen duen Argia Dantza Taldeak euskal antzoki garrantzitsuenetan eskaini du dagoeneko "Pas de Basque" eta publikoa eta kritikaren babes osoa eskuratu ditu. .

**Zugarramurdin Rafael Amargorekin**

Miarritzen estreinatu zen 2002ko irailean eta harrezkero Bilboko Arriagan, Donostiako Kursaalean, Iruñeko Gayarren eta beste hainbat antzokitan erakutsi da. 2003ko abuztuan, esaterako, Zugarramurdiko kobetan Rafael Amargoren "El amor brujo"



emanaldiarekin batera eskaini zen. 40 dantzari eta 10 musikarik parte hartzen dute euskal dantza tradizionalaren proposamen berritzaile honetan, tartean 15 dantzari elgoibartarrek.

Euskal dantzaren alorrean mugarri bat izaten da Urbeltzen ikuskizun bakoitzaeta ikusmin handia sortzen du, ezaguna delako bere emanaldien kalitatea eta tradizioan inspiratzerakoan erakusten duen zorroztasuna.

## Haizea Emakume Taldea

Haizea Emakume Taldeak ikastaro berriak antolatu ditu urtarrilerako. Alde batetik, biodantza ikastaroa eskainiko dute, astearte eta ostegunetan. Bestalde, saltsa, merenge eta sevillana dantzak ikasteko aukera ere eskainiko dute. Azkenik, Gloria Santiagok yoga ikastaroa eskainiko du polikiroldegian. Informazio gehiago lortzeko Pitxintxu (943 74 32 06) dendara jo daiteke.

## Antzerki Txokoa

Atxutxiamaika eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatuta eta Taupada Antzerki Taldearen eskutik, Antzerki Txokoa izango da urtarrilaren 22an, zapatuan, Kultur Etxeko sotoan. HH 4 eta 5 eta LH 1 eta 2 mailako haurrei zuzendutako saioa goizeko 11:00etan hasiko da eta 12:30ean amaitu. Izena emateko epea urtarrilaren 19an amaituko da. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko honako telefonora deitu: 943 74 16 26 (Aiora).



**ESKERTZA**

2005eko urtarrilaren 10ean, 57 urte zituela hil zen
*Jose Enrique Barrenechea Arc*eren
anai-arrebek, ilobek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





**ESKERTZA**

2004ko abenduaren 21ean, 73 urte zituela hil zen
*Paco Muguerza Aldaregui*aren
emazteak, alabek eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen dituzte jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




nahi badozu,
gurean
euskaraz
GUREAN BAI
Euskararen Aldeko Hitzarmena
MERKATARITZA
ORAIN GURE TXANDA DA, EROSLEONA
Elgoibarko dendetan euskara gehiago entzutea, neurri handi batean,
erosleon esku dagoelako.

## San Anton Pilota Txapelketa

# Zapatu honetan jokatuko dira finalak




*Eneko Loiola elgoibartarra (ezkerretik lehena) finalaurrekoetan geratu zen kanpoan.*

San Anton Pilota Txapelketako irabazlea Retegi/Mendizabal eta Diaz/Bengoetxea bikoteen artean erabakiko da zapatu honetan, hilaren 15ean, Ikastolako frontoian jokatuko den final handian. Arratsaldeko 17:30ean hasiko da pilota jaialdia eta promesa mailako gaztetxoak kantxaratuko dira lehendabizi. Olaetxea eta Arraztoa batetik eta Belloso eta Mujika, bestetik, iritsi dira finalera. Ez da pilota ikusteko aukera bakarra izango, gaur bertan, Lau eta Erdiko Elite mailako txapelketako finalaurrekoak jokatuko baitira Ikastolako frontoian 22:00etatik aurrera. Finala hilaren 22an jokatuko da 16:30ean ETBko kamarak bertan direla.

### Conde eta Txurruka txapeldunorde

Lagunak Pilota Eskolako Cristina Conde eta Olatz Txurruka elgoibartarrak Gipuzkoako txapeldunorde izan dira palaz. Jubenil mailako bikoteak Ane Lujanbio eta Nagore Zabala hernaniarren aurka jokatu zuen finala Errenterian eta 30 eta 26 galdu zuten.



## Karrantzara irteera Morkaikorekin urtarrilaren 30ean

Bizkaia eta Kantabria arteko mugan dauden Karrantza eta Trutzioz arteko ibilaldia da Morkaiko Mendizale Elkartearen urteko lehen proposamena. Urtarrilaren 30ean, domekan, izango da irteera Plaza Handitik (8:00). Jadanik irekita dago izena emateko epea. da. Prezioa 10 euro, bazkideek 8.

## [ EMAITZAK ]

**Futbola**

Haundi 3 – Durango 0 (3. maila)
Elgoibar 0 – Zalla 4 (Jub.)
Elgoibar 2 – Touring 1 (Kad.)
Elgoibar 2 – Lagun Onak 2 (Inf. A)
Elgoibar 3 – Bergara 2 (Aleb.)
Elgoibar 2 – Antzuola 0 (Neskak F-8)
A. Ondarroa 0 – Elgoibar 1 (1. erreg.)
Hondarribia 12 – Elgoibar 2 (Inf. B)

**Esku pilota**

Gipuzkoako Txapelketa
Hernani 30 – Lagunak 26 (Jub. nesk. palaz)
Lagunak 10 – Ataun 22 (Kad.)
Huarte 22 – Lagunak 7 (Jub. binaka)
Lagunak 15 – Erreka 30 (Jub. nesk. palaz.)
Lagunak 22 – Lapuebla 6 (Jub. banaka)
San Anton Txapelketa
Olaetxea/Arraztoa 22–Ulazia/Garmendia 7 (Pro.)
Belloso/Mujika 22 – Yubero/Merino 17 (Prom.)
Diaz/Bengoetxea 22 – Arretxe/Oteiza 17 (Nag.)
4 ta erdiko Elite Txapelketa
Lopez Aldai 22 – Erauskin 17
Errea 22 – Baez II 16
Berasaluze 22 – Erroizenea 11
Zapirain 22 – Azagirre 12

**Eskubaloia**

Tecnomeca Sanlo. 23 – Bergara. 22 (Kad. mut.)
Tecnifuelle 36 – Bergara. 26 (Sen.. mut.)
Pilar. 17 – Tecnifuelle sanlo. 28 (Sen.. mut.)
Bergara 22 – ANTT sanlo. 26 (Sen.. mut.)
Sanlo 24 – Muskiz. 20 (Sen. nes.)

## [ AGENDA ]

**Futbola,** Mintxetan

Zapatua, 15
12:30 Pedrusko – Elgoibar (1. erreg.)
16:30 Elgoibar – Reak Union (Inf B.)

**Esku Pilota,** Ikastolako frontoian

4 ta erdiko Elite Txapelketa (finalaurrekoak)
Barixakua, 14
22:00 Lopez Aldai – Errea
22:45 Berasaluze – Zapirain
San Anton Txapelketa (Finalak)
Zapatua, 15
17:30 Olaetxea/Arraztoa – Belloso/Mujika (Pro.)
18:30 Retegi/Mendizabal –Diaz/Bengoetxea (Ng.)

**Eskubaloia**

Zapatua, 15
15:30 Pagoaga Sanlo – Aloña Mendi (Kad. nes.)
17:00 Cometel Sanlo – Aloña Mendi (Jub. nes.)
18:30 Tecnifuelle – UPV Askartza (Sen. mut.)
Zapatua, 15
9:15 Sanlo – Aloña Mendi (Inf. mut.)
10:30 ANTT Sanlo – Eibarko (Jub. nes.)

# Merkatua

**OHARRA**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

- Elgoibarko enpresak **klinikarako erizain laguntzailea** behar du. Erref. 162004010829
- Azpeitiko enpresak **auto margolaria** behar du. Erref. 162004010980
- Oñatiko enpresak **geriatria erizain laguntzailea** behar du. Erref. 162004011000
- Zumaiako enpresak **CNC makinen programatzailea** behar du. Erref. 162004010595
- Zumaiako enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162004010232
- Gipuzkoako enpresak **odontologoa** behar du. Erref. 162004010795
- Gipuzkoako enpresak **tornurako langilea** behar du. Erref. 162005000133
- Arrasateko enpresak **atezaina** behar du. Erref. 162005000225
- Azpeitiko enpresak **inkestatzaileak** behar ditu. Erref. 162005000173
- Mendaroko enpresak **CNC tornurako langilea** behar du. Erref. 162005000194
- Arrasateko enpresak **industriako manteinu lanen arduraduna** behar du. Erref. 162005000130
- Azpeitiko enpresak **automozio mekanikaria** behar du. Erref. 162005000246
- Azpeitiko enpresak **kamareroak** behar ditu. Erref. 162005000027

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## LANA

**ESKAERA**

Emakumea nagusiak zaindu, garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **639 88 20 04**

Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **943 17 28 96 (Mertxe)**

Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **679 86 41 47**

Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarteak...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburuak barne. ☎ **618 37 91 47**

Gizonezkoa pintore, peoi edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **679 86 41 47**

Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. ☎ **659 627 356 (Khadra)**

Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **677 05 99 99**

Emakumea sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. ☎ **699 60 91 90**

Boliviako mutila peoi, txofer edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **620 36 38 24**

Emakumea edozein lan egiteko prest. Arratsaldez, 14:30-17:00. ☎ **665 755 211**

Gizonezkoa Debabarrenean eraikuntza, soldadore... lanetarako prest. ☎ **639 88 20 04**

Emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Gauez ere bai. ☎ **686 10 85 52**

Bi emakume garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **605 74 08 50 (Elfi eta Deisi)**

Gizonezkoa Debabarrenean eraikuntzan, soldadore... lanetarako prest. ☎ **661 22 51 49**

Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

Emakumea orduka tabernak garbituz edo sukalde laguntzaile gisa lan egiteko prest. ☎ **647 155 908**

**ESKAINTZA**

Eibarko jatetxerako pertsona euskalduna behar da. Autoa ezinbestekoa. ☎ **943 70 19 95 (22:00etatik aurrera)**

Kamareroa behar da. ☎ **670 25 04 29**

Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona behar da. ☎ **943 74 02 41**

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Egun solteak. ☎ **943 74 18 46**

## LOKALAK

Lokala salgai Urasandin. 150m². ☎ **943 74 08 64**

## ETXEBIZITZAK

**SALMENTA**

Etxea salgai Basarteko lehen ilaran. 68m². Dena kanpora begira. Bi logela, 2 komun, egongela, sukaldea, lehortegia eta garajea. ☎ **687 23 58 39**

Etxea salgai erdialdean, leku lasaia. 3 logela, 2 komun. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **615 78 71 18**

Etxea salgai Basarten. 74m². Garajea aukeran. ☎ **687 05 17 89**

Etxea salgai Santa Ana kalean. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, despentsa, 2 ganbara. Argitsua, lasaia. ☎ **685 767 900**

Atikoa salgai. Bizitzera sartzeko moduan. Sukaldea, egongela. bi logela, trastero handia eta igogailua. ☎ **656 72 44 01**

Etxea salgai Bernardo Ezenarro kalean. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela. jangela. Berritua, altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **678 44 66 93**

Etxea salgai Basarten. 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea. ☎ **620 549 500**

Etxe berritua salgai Soraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Garajea, entreplanta eta txokoa. 144m2. ☎ **615 77 99 20**

Etxea salgai Santa Ana kalean. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

Apartamentua eta txokoa salgai Ean (Bizkaia). Aukera ezin hobea. ☎ **675 70 01 95 (Mª Jesus)**

Arregitorren etxea salgai. 3 logela, egongela, 2 komun, ganbara, berritua eta eguzkitsua. ☎ **679 830 438**

Etxea salgai Errosario kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea ekipatua, egongela. ☎ **658 71 89 26**

Etxea salgai Pedro Muguruzan. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. 2 logela, egongela handia. ☎ **675 70 01 95**

Etxea salgai Errosario kalean. Berogailua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **943 74 02 68/699 17 98 72**

Pisua salgai Sigman. Berritua. Prezioa adosteko. ☎ **943 74 29 21**

**ALOKAIRUA**

Pisua behar da alokairuan. Premiazkoa. ☎ **678 117 022**

Pisua hartuko genuke alokairuan, konpartitzeko. 70.000pzta, inguru. ☎ **677 097 015**

Pisua hartuko nuke alokairuan, edo konpartitzeko. ☎ **658 740 787**

Etxea hartuko nuke alokairuan. Ez oso handia. ☎ **600 28 27 93**

## SALEROSKETAK

San Roke auzoan 4000m²-ko terrenoa salgai. ☎ **627 377 543**

Opel Corsa, 1.7 di autoa salgai. Modelo berria. Egoera onean. ☎ **943 74 01 97/645 048 110**

Citroen ZX turbo diesel autoa salgai. Prezio onean. ☎ **943 11 98 60/630 15 66 01**

Garaiko andregai trajea salgai. Egoera oso onean. ☎ **943 02 66 27/609 200 620 (Toñi)**

Hispano-arabe arrazako zaldia salgai. Hezitua eta pasiaran ibiltzeko egokia. ☎ **669 03 89 57**

Vitrozeramika, laba, konbia eta mepansa salgai. Berriak, merke. ☎ **943 74 04 86**

Sukaldeko mahaia, bi banketa eta bi aulki salgai. Egongelako armairuak ere bai. ☎ **943 74 04 86**

Renault Megane Scenic 1.9 dci grisa salgai. 2000. urtekoa. 8.500 euro. ☎ **660 660 503 (Ibon)**

Mitsubishi Montero Sport 2.5 tdi Gls plus, 115 zaldi, 4x4 salgai. 2003koa, 35.000 km. Beti garajean. ☎ **639 179 171**

Sehaska bat salgai, forratuta. Prezio onean. ☎ **943 74 16 19**

Play Station 1 salgai. Mandoa, memory card, joku originala. 48 euro. ☎ **943 74 32 96**

Wind Surf tabla salgai. 5,8 metroko bela. 325zm. eslora. Ekipo osoa. 550 euro. ☎ **610 631 842**

Opel Kadett 1400 salgai. Ekonomikoa. ☎ **652 77 11 94**

## GARAJEAK

Garaje itxia salgai Ermuaranbide kalean. 19,90m² ☎ **943 74 06 88**

Madalako errotondaren ondoan garaje itxia salgai. ☎ **943 74 24 06**

Garajea alokatzen da Ubitarten. ☎ **943 74 06 88**

## BESTERIK

Aterki gris berria topatu dut apeaderoan. ☎ **943 53 16 72**

Jertse beltza galdu nuen urte zahar egunean Iratxo tabernan. Udaltzaingora eraman.

Trasteroa hartuko nuke alokairuan. ☎ **943 53 13 67**

Txakur zuria aurkitu dut San Lorentzo inguruan. ☎ **943 74 12 23**

Taberna alokatzen da Basarten. ☎ **670 65 49 21**

Sofa zaharrak botatzeko dituenak, mesedez deitu, gazte lokalerako behar ditugu. ☎ **679 08 94 81**

# [AGURRAK]



Zorionak **Mikel** hilaren 17an zure eguna delako. Azkenean 18 urte egin dituzu!



Zorionak **Aitorri** urtarrilaren 4an 3 urte egin zituelako. Familiakoen eta bereziki zure anaien partez.



Zorionak **Maialentxo** gaur 7 urte bete dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Aroaren partez. Ondo pasa!



Zorionak **Ibai**ri, gaur, hilak 14, 8 urte bete dituelako. Markel, Julene eta Nerearen partez.



Zorionak **Ane** hilaren 7an, 5 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Julene** abenduaren 28an, 8 urte egin zenituelako. Olaia eta familiako guztien partez.



Zorionak **Iñigo Ayesta**ri bere 7. urtebetetzean. Familiako guztien partez.



Zorionak **Anadelia**ri abenduaren 23an bi urte bete zituelako. Amatxoren partez.



Zorionak **Andrea**ri urtarrilaren 5ean, 7 urte egin zituelako. Gurasoen eta anaia Ekain eta Asierren partez.



Zorionak **Onintza** urtarrilaren 7an, 4 urte bete zituelako. Etxeko guztien partez.



Zorionak **amatxo** bihar, hilak 15, urteak egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki Ane eta Mariaren partez.



Zorionak **Gorane** urtarrilaren 11n 13 urte bete zenituelako. Baita zuri ere **aitxitxa Juan** gaur, hilak 14, urteak bete dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak **Miguel eta Antonia** urtarrilaren 1ean urrezko ezteiak egin zenituztelako. Braulia, Loli, Lorenzo, Toñi eta Anaren partez.



Zorionak **Zipi** eta **Zape** zuen urtebetetzean.
Beti elkarrekin.
Beti borroketan.
Beti elkar faltan sentitzen.



Zorionak **Gorka** eta **Anton** zuen urtebetetzean. Gorka hamaseian, Anton hamazazpian amatxo eta Anderren partez.


VIAJES ECUADOR

HALCON BIDAIAK bulegoaren itxiera dela eta, talde berekoa den VIAJES ECUADORek ELGOIBARren duen bulegoan izango gaituzue.




San Bartolome, 5
Tel.: 943 74 73 22 • Faxa: 943 74 04 98

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]




16 igandea DOÑA MERCEDES 17 astelehena EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 14 | Zabaleta | Zabaleta |
| 15 | Etxeberria *(Errosario)* | Etxeberria |
| **16** | **Etxeberria** (Errosario) | **Etxeberria** |
| **17** | **Ibañez** | **Ibañez** |
| 18 | Bidasolo | Bidasolo |
| 19 | Etxeberria *(Santa Ana)* | Etxeberria |
| 20 | Fernandez | Fernandez |
| 21 | Yudego | Yudego |

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ TELEFONOAK ]

| **OSASUNA** | |
|---|---|
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |
| **UDALA** | |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| Hirigintza | 943 74 43 84 |
| Epaitegia | 943 74 16 30 |
| Haziena | 943 74 44 14 |
| Mendaroko Udala | 943 03 32 82 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Debemen | 943 74 40 67 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

| **BESTELAKOAK** | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| KZ gunea | 943 74 88 28 |
| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |
| **IKASTETXEAK** | |
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua | |
| Arreiturre | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
***Pesa: 902 10 12 10***

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**SIGMA - ARRIAGA**
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ARRIAGA - SIGMA**
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK**
***EUSKOTREN: 943 74 04 42***

**ELGOIBAR-DEBA**
1:05, 2:35, 4:35, 6:05

**DEBA-ELGOIBAR**
12:10, 1:55, 3:40, 5:25

**ELGOIBAR-EIBAR**
12:25, 2:10, 3:55, 5:40

**EIBAR-ELGOIBAR**
1:00, 2:30, 4:30, 6:00

## 14 BARIXAKUA

19:30 **ANTZERKIA**
*"Cocidito Madrileño"*
*Taldea: Glu Glu produkzioak*
Herriko Antzokian
22:15 **ANTZERKIA**
*"Cocidito Madrileño"*
*Taldea: Glu Glu produkzioak*
Herriko Antzokian




## 15 ZAPATUA

12:00 **XXV. ZIGILU ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
"Altzolatarren Dorretxea" Filatelia Elkartearen 25. urteurrena
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Urtarrilaren 23ra arte
17:00 **SAN ANTON PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK**
Ikastolako frontoian
Antolatzailea: Lagunak Taldea
22:15 **EUSKAL DANTZEN IKUSKIZUNA**
"Pas de Basque"
Zuzendaria: Jose Antonio Urbeltz
Herriko Antzokian

## 16 DOMEKIA

13:30 **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Elgoibarko dultzaineroekin batera

## 17 ASTELEHENA

**11:00 MEZA NAGUSIA**
San Bartolome parrokian
Bertan, Parrokiako Abesbatzak abestuko du

**11:30 UMEENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian (euria eginez gero, Ikastolan)

**12:30 KONTZERTUA**
Ertzaintzaren banda
Herriko Antzokian

**16:30 UMEENTZAKO PARKEA**
Plaza Handian (euria eginez gero, Ikastolan)

## 18 MARTITZENA

**12:30 LXII. MUGERZA KROSAREN AURKEZPENA**
*Udaletxeko Pleno aretoan*



## 20 EGUENA

**18:00 "IZARREN HAUTSA 40 URTEAN" LIBURUAREN AURKEZPEN EKITALDIA**
*Liburuaren egilea: Imanol Larrañaga*
*Inazio Bereziartua Musika Eskolako areto nagusian*
*Antolatzailea: Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea*

## 22 ZAPATUA

**11:00 ANTZERKI TXOKOA, TAUPADA ANTZERKI TALDEAREKIN**
Norentzat: HH 4 eta 5 eta LH 1 eta 2
Kultur Etxeko sotoan
Izena emateko azken eguna: urtarrilak 19
Antolatzaileak: Atxutxiamaika eta Elgoibarko Izarra
Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Aiora)

**11:00 SAN BIZENTE EGUNEKO MEZA**
San Rokeko ermitan

**17:00 SAN BIZENTE EGUNEKO BOLO TXAPELKETA**
San Rokeko ermitan

**20:30 LAGUNARTEKO BAZKARIA**
San Roke auzoan

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR**
HERRIKO ANTZOKIAN

**«El Lobo»**
16, domekia: 19:30-22:15
17, astelehena: 19:30-22:15
**«La busqueda»**
21, barixakua: 22:15

**EIBAR,** UNZAGA
**«Alejandro Magno»**
14, barixakua: 19:30
15, zapatua: 17:30-21:00
16, domekia: 17:30-21:00
17, astelehena: 19:30
18, martitzena: 19:30
19, eguaztena: 19:30

**EIBAR,** RIALTO
**«Luna de Avellaneda»**
14, barixakua: 19:30-22:15
15, zapatua: 17:00-19:30-22:30
16, domekia: 17:00-19:30-22:30
17, astelehena: 19:30-22:15
18, martitzena: 19:30-22:15
19, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



**ESKERTZA**
2005eko urtarrilaren 12an, 83 urte zituela hil zen
*Luken Larreategi Oruna*ren
emaztea, seme-alabak eta gainerako sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



# Atzera begira



**1966**. urteko erretratu zahar hau herritar batek laga digu. Argazkia ekainaren 29an ateratakoa da, eta bertan, "El Rayo de Elgoibar" futbol taldea ageri da. Egun honetan Debako hondartzako futbol txapelketako finala irabazi zuten 2-1, Debako Gau Txori taldearen kontra. Garaipena ospatzeko Gorbea tabernan elkartu ziren. Gorbea jatetxea, hain justu, San Anton egun batez ireki zen orain dela 50 urte. Argazkiaren erdian Karmelito ageri da beraiekin. Herrian oso ezaguna zen Karmelito, izan ere, ospakizun guztietan hartzen baitzuen parte. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen direnak:

Atzean, ezkerretik eskumara: **Faustino Pascual "Pelos", Joaquin Acosta "Quini", Anjel Ruiz, Juan Gonzalez "Polilla" eta Juan Leal "Txani".**

Beheko ilaran, ezkerretik eskumara: **Vicente Gonzalez "Cucho", Enrike Garcia, Karmelito (†), Lorenzo Antolin eta Juan Martin (C.D. Elgoibarko atezain ohia).**

---



Patxi Albizu Albizu

2004ko urtarrilaren 9an hil zen
67 urte zituela

*Mariasunen senar zen Patxi*
*hilaren bederatzia zen*
*gugandik joan zen eguna.*
*Auzoan eta erbestean,*
*Patxi denen laguna.*
*Beste inork ezin du bete*
*berak laga duen hutsunea.*
*Meza santua ospatzen,*
*gaur bere urteurrena.*
*Etortzen diren guztiei,*
*aurrez esker ona.*
*Jaunak eman diezaiola betirako,*
*zeruan bake zoriona*

**Bere alde urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 15, arratsaldeko, 19:00etan San Bartolome Parrokian.**

# nora hortz klinika

Nora Bastida Etxeberria Odontologoa
736 elkargokide-zbk.



- Odontologia kontserbadorea
- Hortz estetika
- Hortz protesiak
- Periodontzia
- Inplantologia

MENDARO

Azpilgoeta, 5 behea
Tel.: 943 03 35 75





ARAMBURU
BITXIDENDA

ARANBURU BITXIDENDAKO
GABONETAKO ZOZKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

1. SARIA
GIZONEZKOENTZAKO
URREZKO ERLOJUA

Seriea: A
Zkia.: 4.450

Ordezkoa: B seriea 276 zenb.



2. SARIA
EMAKUMEZKOENTZAKO
URREZKO ERLOJUA

Seriea: A
Zkia.: 1.380

Ordezkoa: B seriea 2.366 zenb.

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 74 25 35

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ **943 74 31 16**

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ **943 74 43 47**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ **943 74 32 38**

**IMAR**
Erreformak
☎ **943 53 14 71**
☎ **646 90 55 64**
☎ **609 05 49 78**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ **943 74 05 47**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ **943 74 30 94**

## ITURGINTZA, GASA, BEROGAILUA ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ **943 74 17 61**
☎ **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
☎ **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ **943 75 50 62**
☎ **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ **943 74 05 30**

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezkerra
☎ **943 74 15 52**
☎ **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
☎ **943 74 04 40**
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ **943 74 12 38**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 34 18**

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ **605 70 52 04**

## INDUSKETA LANAK

**LEKUNBERRI INDUSKETAK**
Indusketa eta
indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ **943 74 20 98**
☎ **629 425 632**
*koldolekunberri@hotmail.com*
*www.excavacioneslekunberri.com*